



Garapen ahalmenik handiena haurrak bere bizitzako lehen sei urteetan duenez gero, umea modu osasuntsu eta globalan garatu dadin Arizmendi Ikastolak ikertzen eta garatzen duen proiektua da.

ZER LORTU NAHI DU?

Haur Hezkuntza bukatzean, bere bizitzako edozein egoerari erantzuten dion sei urteko pertsona zoriontsu, euskaldun eta kooperatiboa izaten lagundu nahi dio.

ZEIN DA BERE PEDAGOGIA?

Konfiantzaren Pedagogiaz baliatzen da ERDU proiektua. Konfiantza, haurra bera bere buruarekin eta ingurukoekin seguru sentitu dadin eta segurtasun horrek ematen dion konfiantzaz bere burua, nahiak eta ametsak garatu ditzan.





GURE EGITEKO MODUA

1. SUBJEKTU AKTIBOA:

Haurra bere ikaskuntzaren subjektu aktiboa da eta bere erritmoa kontuan hartuta ikastolak lagundu egiten dio.

2. KONFIANTZA ETA SEGURTASUNA:

Oinarrizkoak dira gure ikastolan. Konfiantzaz begiratzeko pertsona; bere gaitasun, zailtasun eta ametsak errespetatuz garapen osasuntsu bat izan dezan.

3. ESPAZIOAK ETA MATERIALAK:

Haurren beharrei erantzunez espazio aberatsak eta anitzak eskaintzen ditugu, haur bakoitzak bere ibilbide propioa egin dezan. Horretarako, sormena bultzatzen duten materialak erabiltzen ditugu.

4. DENBORAK:

Eguneko momentu desberdinak antolatzerako orduan pertsonaren erritmo biologikoak hartzen ditugu kontuan.

5. IKASTOLA-HERRIA:

Herritik herriarentzat sortu ginen, ikastola herria da; herriko ikastola gara.

6. INTERAKZIOA ETA KOOPERAZIOA:

Haurra beste haurrekin, senideekin, irakasleekin eta komunitatearekin plazerean oinarritutako bizipenen bidez kooperatzen jartzen du ikastolak.

7. EUSKALDUNTASUNA:

Euskalduntasuna munduan kokatzeko modu originala da eta ikastola hau egiteko bidelaguna da. Gure kultura munduko gainerako kulturekin elkarriketan eta harremanetan jartzen dugu ikastolan, elkarren arteko begirunetik eta bakoitzaren errealitatea ezagutzeko.

8. FAMILIA IKASTOLAN:

Familia ikastolaren parte garrantzitsua da eremu instituzionalean duen eginkizunagatik eta egunerokotasunean ikastolako espazioetan duen lekuagatik eta presentziagatik. Gure bizipen pedagogikoen motorretako bat da familia.



ZERBITZU OROKORRAK

Otalora Lizentziaduna, 8. 20500 Arrasate
Tel. 943 77 20 25
arizmendi@arizmendi.eus
www.arizmendi.eus